

noaua



Beñat Larrañaga:
“Ekonomia eta enpleguaren
sustapena izango dira
Beterri Buruntza
Mankomunitatearen
lan ildo nagusiak”

Zubietako Mintzalagun
egitasmoa ostiral honetan
aurkeztuko dute



Usurbilgo egoitza berria
aitzindaria eta berritzailea izango da



URTINEA

San balentin egunean...
era guztietako aukerak oparitzeko!

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

Usurbilen,
zure auto-tailerra

Esena Ramon

Atallu
AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
DOHAIZNIK IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua

EuroTaller

Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoaki@gmail.com

ARATZ
zabaleta anaiak
1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

Albisteak iruditan

Michelingo langileak, lan erreformaren aurka



Espainiako Gobernuak lan erreforma onartzeko bezpera, haren aurkako mobilizazio eguna izan zen otsailaren 2a Hego Euskal Herrian. Euskal gehiengo sindikalak deitutako manifestazio eta elkarretaratzeak egin ziren hiriburu eta herrietan. Tartean, Michelinen. Argazkia: Michelingo LAB sindikatua.

Laburrean

Neurriak malgutzen

EAE-ko Auzitegi Nagusiak lehenbizi eta Eusko Jaurlaritzak gero Covid-19 ziuertagiriaren erabilera bertan behera utzi dute egunotan. Espainiako Gobernuak bestalde, kalean musukoa erabiltzearen derriortasuna ezabatzea da ostegunetik aurrera.

“Aktibatzen” galdetegia

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren plan estrategikoa garatzeko ‘Aktibatzen’ parte hartze prozesua abiatu du Udalak. Galdetegia bete daiteke usurbil.eus/aktibatzen/helbidean edo Sutegin, Oiardon eta udal erregistroan. Ekarpinak ere egin daitezke usurbil.eus/aktibatzen atalean.

Beherakada berresten

Pixkanaka beherantz segitzen du koronabirusaren intzidentziak Usurbilen; 3852,25ean zen aste hasieran. Egun batzuetan hamar kasu baino gutxiago izatera itzuli gara. Inoizko kasu gehienekin agurtu genuen urtarrila, 681 positiborekin.

noaia

Kultur Elkarte
Bordaberi, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaia.eus ||| www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrira!



Luis Aranalde

Pelikula-dokumental hau ikusteko irrikatzen nengoen. Alde batetik filmak kontaktzen dituen gertakizun horiek oso urrutitik bizi izan nituelako (garai hartan Frantzia aritu nintzen lanean irakasle eta apaiz bezala) eta jakin minez nengoen eta bestetik, bertan agertzen diren abade batzuk oso lagun ditudalako. Bi aldiz ikusi dut eta bigarren aldian elkarrizketa batean parte hartzeko aukera izan nuen, hain zuzen, Ritxi Lizartzarekin (filmaren zuzendarietako bat) eta Xabier Amurizarekin. Oso aberasgarria solasaldi hura.

Harritzekoa da nola frankismoaren garaiak historia benetan sinestezinak ezkututzen dizkigun oraindik ere. Zamorako konkordatu-espetsaren ("konkordatu deitzen zaion munstro-kume" deitzen dio Amurizak) existentzia dugu kontu sinesgaitz horietako bat. Erregimenaren eta haren habe nagusia zen espainiar elizaren ehun bat apaiz euskaldun pasa ziren kartzela hartatik. "Eskerak sei apaizi, ez zaik ezer sano utzi, egik sutan garrasi", kantatzen dio Amurizak espetsari.

Apaiz horien kontrako sakaketa nagusia izan zen "terroristak zirela", alegia. "Ez ginen kapaz tiragoma batekin txoriari eraso egiteko eta kartzelan sartu gintuzten terro-

Apaiz kartzela



"Ehun bat apaiz euskaldun pasa ziren Zamorako kartzela hartatik".

LUIS ARANALDE

"Garai latz haietan bere gizartearen aldeko konpromisoari irmo heldu zioten abade haiek"

rismoagatik", dio apaizetako batek. Abade hauen krimena izan zen Franco diktadorearen errepresioaren aurkako jarrera erakustea. Sermoieta diktadorearen zapalkuntza salatzeagatik hamabi urteko kartzela-zigorra jaso zuten.

Bada, garai latz haietan bere gizartearen aldeko konpromisoari irmo heldu zioten abade haien bizipenak azaltzen ditu "apaiz kartzela" dokumental honek. Presondegi hori irekita egon zen 1968tik 1976ra. Jende askorentzat ezezaguna denez, "kontatu nahi izan dugu belaualdi berriek jakin dezaten zer gertatu zen epoka hartan", diote apaizek.

Dokumentalaren hasieran apaiz talde txiki bat ikusten dugu. Preso egon ziren kartzelara i-

tzultzen dira: "heldu ginen Zamorara/infenu-zulo hontara. Jainkorik bada, dagon lekutik/anpara gaitzala". Oso kuriozoso beraieen aurpegiak ikustea. Ia hasieran hil kutxa bat ikusten da eraikuntzaren aurrean eta Amurizak kantatzen du Donostiako belodromoan 1980ko txapelketan abestu zuen bertsoa: "Aita izena kanta beharrak/jarri dit bihotza bero/aukera eder hau izango zenik/ez nuen hemen espero. Preso nengoen Zamoran/han gelditu ia ero/joan nintzen eta bertan nengola/aita hil zitzaidan gero/. Nahiago nuke edozer baino/hemen bizirik balego". Pelikula osoan zehar bertso honek hunkitu ninduen gehientxoan.

Gorrotok eta oinazeak ez ditu bultzatu apaiz hauek dokumental hori egiterakoan, emozioak baizik. Azpimarratzekoak dira bertan agertzen diren beren arteko adiskidetasuna eta solidaritatea. Iritzi ezberdinen bila ere ibili dira pelikularen hiru zuzendariak: espetsxeko funtzionario

batena, kazetariena, adituen eta abar. Harrituta daude abade hauek, izan ere "lehen hain ezkutuan eduki gintuzten eta orain bat batean hain agerian pantaila handian".

Apaiz hauen fedea sekulara egurra hartu zuen ikusirik Eliza hierarkiaren jarrera. Kontraesan nabaria zegoen arduradun erlijiosoek aldarrikatzen zituzten balore ebanjelikoaren eta beren portaeraren artean, hau da, bat eginik diktadore beldurgarri batekin. Ez da harritzekoa ia denek apaiz izateari uztea. Batek dioen bezala, "horrek ez du esan nahi halere sinesmena galdu genuenik". Fedearen parte bat abandonatu zuten, Elizarengan zutena.

Ez nuke amaitu nahi filmaren soinu bandaz zertxobait esan gabe ni musika munduan nabilenez. Joserra Senperenarena da soinu banda eta biziki gustatu zait. Irudien eta emozioen euskarriztat jotzen dut eta oro har musika erraza entzuteko. Donostiar honen musika lehor samarra gerta dakiokete teknika eta armonia berriekin apur bat ohituta ez dagoenari. Baina Senperenak berak esaten duen bezala, "sortzen ditudan soinu paisaiak armonian datoz musika garaikidearekin". Erabiltzen dituen disonantziak erraz asimilatzeke modukoak dira. Atrebentzia musikalak ez dira gogorregiak.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



UEMAren udaleku ibiltariak begiraleak eta sukaldariak behar ditu

Udalerrri euskaldunetako gazteentzako udalekuak ekainaren 27tik uztailaren 3ra izango dira aurten, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea, martxoaren 31 arte.

UEMAk antolatutako ekimena ibiltaria izango da. 50 laguneko bi zutabe abiatuko dira. Bat Tolosatik, eta bestea Etxarri Aranaztik, eta laugarren egunean Leitzaun elkartuko dira bi zutabeak. "Udalerrri euskaldunetako gazteak euskarren inguruan sentsibilizatzea,

kontzientziaztea eta eragile aktibo bihurtzea da udalekuen helburua", UEMAtik aditzera eman dutenez.

Aurten, plaza kopuru bikoitza laz gazte askok eman zuten izena, eta asko kanpoan geratu zirenez, aurten parte-hartzaileen kopurua bikoiztea erabaki du UEMAK.

Begiraleak eta sukaldariak behar dira udalekurako

Ekainaren 27tik uztailaren 3ra UEMAK antolatutako udaleku ibiltarian 14-18 urte bitarteko

gazteekin lan egiteko aisialdiko begiraleak eta sukaldariak behar dira. Bidali curriculumak arnasguneak@uema.eus helbide elektronikora martxoaren 4a (ostirala) baino lehen.

Ondorengo jakintzak baloratuko dira:

- Begirale titulua izatea.
- EGA edo bere baliokidea izatea.
- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak izatea edo burutzen egotea.
- Lan eskarmentua antzeko lanetan.



"Salto" udalekuak ekainaren 27tik uztailaren 3ra izango dira eta izena emateko epea zabalik da jada.

- Euskararekiko sentsibilizazioa
- Taldean lan egiteko erraztasuna.

Ika-mika

Covidak egoera ekonomiko jasan ezina ezkututzen du

Duela egun batzuk, Adrian Zelaia Ekai Centerreko lehendakaria, Usurbilen izan zen Covid krisiaren atzean munduko egoera sozio-ekonomiko jasan ezina ezkututzen duen tesia azaltzeko.

Mendebaldeko zorpe-tze-maila, Estatu Batuak eta Europa barne produktu gordinaren %350 da. Egoera hori guztiz lotuta dago 2008ko krisiarekin. Sistema ekonomiko hori artifizialki mantentzeko, diru asko inprimatu dute Estatu Batuetako Erreserba Federalek eta Europako Banku

Zentraletik.

Sistema ekonomiko neoliberal horri artifizialki eustearen helburua denbora irabaztea da, prozesu honetan zuzentzen dituen elite ekonomikoek bi estrategia garatu ahal izan ditzaten.

1. Aipatutako gainzorpetzea nabarmen murrizteko estrategiak abian jartzea. Izan ere, estrategia horietako bat gure banku-gordailuen errekisa da.

2. Sistema ekonomiko berri bat martxan jartzea. Elite ekonomiko hauek jarri dioten izena "GRAN REINICIO" da.

Eredu ekonomiko berri hau abian jartzeko eta gainzorpetzea murrizteko estrategiek,

kontrol sozialerako tresnak sartu behar dituzte gizartean. Adibidez, Covid pasaporte eta nazien pasaporte. Hurrengo belaunaldientzat une erabakigarrian gaude, egungo sistema ekonomikoak ez baitu gehiago ematen. Beraz, duela 2 urteko normaltasunera itzultzeko promesa erabat faltsua da.

Bi bide ditugu. Argi eta garbi proiektu totalitarioa den "Gran Reinicio" honi obeditzea eta bestetik, gure osasuna kalteztzen duten eta gure oinarritzko eskubideak urratzen dituzten neurriei aurre egitea. Bigarren bideak gizarte eredu berri bat

eraikitzeko erronkaren aurrean jartzen gaitu, non herri eta udalerrri guztiek modu deszentralizatuan parte hartuko dugun.

Guraso talde batek bigarren bide horretan lanean hasteko erabakia hartu dugu. Eta lehenengo urratsa Usurbilgo herritarrek datorren ostiralean, otsailak 11, arratsaldeko 18:00etan Sutegi Kultur Etxeko areto nagusian bilera batera deitzea izango da.

1. Adrián Zelaia egindako elkarrizketa ikustea.
2. Bizitza Usurbil lantaldea eratzea.

Bizitza plataforma



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ERAMATEKO!!!



·EGUNEKO MENUA ·KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU OR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA · JATETXEA



www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39



Otar-Goxo
Elizagaia

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

“Legegintzaldi honetan, zorionez, adostasun politikoetara iristeko gai izan gara”

Garapen agentziarik ez zuen Gipuzkoako azken eskualdeetako zen gurea. Urtarrilaren 17an osatu zen azkenean, Hernaniko pleno aretoan eginiko sortze batzarrean. Beterri Buruntza Mankomunitatea izenarekin bataiatu dute erakunde berria eta Beñat Larrañaga izango da gobernu batzordean ordezkatuta egongo den usurbildar bakarra.

NOAUA! Garapen agentziarik ez zuen Gipuzkoako azken eskualdeetako zen hauxe, Buruntzaldekoa. Zer dela eta?

Beñat Larrañaga: Legegintzaldiz legegintzaldi aldatuz joaten dira arduradun politikoak. Beraz, erabateko erantzun argirik ezin dizut eman. Agurtzane Solaberrieta eta biok 2019tik hona ari gara prozesu honetan parte hartzen eta biok berriak gara hemen. Aurreko agintariekin lotura bagenuen, noski, baina prozesu honen hasiera 2012raino atzeratzen da.

Garapen agentzia ofizialki osatu bitartean, 2012tik hona elkarlanean aritu dira Buruntzaldeko herriak, lankidetzaz hitzarmen baten bitartez. Ia 10 urtez atzeratu da garapen agentziaren osaketa. Zergatik atzeratu da hainbeste?

Orditik hona negoziaketa politikoetan adostasun falta egon



Beterri Buruntza Mankomunitateak garapen agentzia baten funtzioa beteko du. Beñat Larrañaga EH Bilduko zinegotzi usurbildarrak bertako gobernu batzordean hartuko du parte.

BEÑAT LARRAÑAGA

“Beterri Buruntza Mankomunitateko erabaki guztiak bi herenez osaturiko gehiengoarekin hartu beharko dira eta horrek esan nahi du adostasun politiko handiak erdietsi beharko direla”

delako Mankomunitatearen sorrerarako. Legegintzaldi honetan, zorionez, adostasun politikoetara iristeko gai izan gara. Egoerak behartuta, azkartu egin da prozesua.

Beterri Buruntza Mankomunitatea eratuta berri da. Bertan lanean arituko den pertsonalagoaren aukeraketa egin behar da orain. Garapen agentziaren egitura osoa, politiko nahiz profesionala, noizko egongo da %100ean martxan?

Kronograma bat badago egin baina ez naiz ausartzen esatera noizko egongo den martxan. Legegintzaldi hasieran osatu genuen kronograma baina epeetan asko atzeratu gara.

2019an Andoaingo Udalean alkatetza aldaketa eman zenetik hona, lidergo falta bat sumatzen dugu. Gaur egun

lankidetzaz hitzarmenaren arduradun pertsona izango da Buruntzaldeko Mankomunitateko lehendakaria (Marijose Izagirre, Andoaingo alkateorde jeltzalea). Eta lidergo falta horrek eragin du, besteak beste, eratze prozesuaren atzerapena.

Bestetik, Beterri Buruntza Mankomunitatearen estatu berrien arabera, ia erabaki guztiak bi herenez hartu behar dira eta horrek esan nahi du adostasun politiko handiak erdietsi beharko direla. Adostasun handi horiek lortzeko borondatea behar da eta horrek ere epeetan eragin dezake.

“Gure nahiak apaldu behar izan ditugu akordioetara iristeko”

NOAUA! Garapen agentzian lan egingo duen pertsonalagoaren kontratazioa martxan al da?

Beñat Larrañaga: Ez. Aurrelanketa batzuk eginak daude, eta adostasun minimo batzuk badaude horretarako, nahiz eta ez diren guk nahiko

genituzkeenak. Gure nahiak (EH Bildurenak) apaldu behar izan ditugu akordio batzuetara iristeko, blokeo egoera batean sartzeko arriskua ikusten genuelako.

Lehen esan bezala, bi herenez osaturiko gehiengo bat behar da erabakiak adosteko

eta EAJ eta PSE-EE alderdien artean ez dute bi hereneko gehiengo lortzen gu gabe. EH Bilduk ere ez. Guk beraietako batekin osatuko genuke gehiengo hori, baina haiek biek behar gaituzte gu. Guk bietako batekin nahikoa genuke gehiengo horretara iristeko.

Esan bezala, adostasun batzuk badaude baina orain garapen agentziari berari dago kio lanpostuen zerrenda bat eta aurrekontu bat onartzea. Bertan jarriko dira prozedura guztiak martxan, baina prozedura horiek mantsoak izaten dira.

“Ekonomia eta enpleguaren sustapena izango dira garapen agentziaren lan ildo nagusiak”

NOAUA! Buruntzaldeko garapen agentziaren misioa zein izango da eta zer nolako zerbitzuak eskainiko ditu?

Beñat Larrañaga: Misioa? Eskualde mailako lankidetzaren hitzarmenak 2012tik hona izan duenaren parekoa. Sustapen ekonomikoa eta enpleguaren sustapena izango dira lan ildo nagusiak. Beste lan ildo batzuk izan ditzake etorkizunean, baina orain arte lankidetzaren hitzarmena bi helburu horietan oinarritu da eta, hasiera batean behintzat, bi egitasmo horiei eutsiko zaie.

Enpleguaren arloan zer nolako programak sustatuko dira?

Prestakuntza eta enplegua sustatzeko ekimenak jarri dira martxan. Tokiko enplegua sustatzeko ekintzak; proiektu singularrak; ‘Auzolanberri’, ‘Hazi-lan’, ‘Txertatu Merkatuan’ edota ‘Forma Gaitezen’ programak...

Kontratazioari dagokionez, tokiko enplegu ekintzen baitako diru-laguntzak eman zaizkie enpresei kontratazioak sustatzeko, formakuntza bonuak...

Intsertzio sozio-laboralari lotutako zerbitzuak ere eskainiko dira. Pertsonak artatzeko



Urtarrilaren 17an jaio zen eskualdeko garapen agentzia, Beterri Buruntza Mankokunitatea. Marijose Izagirre andoaindar jeltzalea izendatu zuten garapen agentziako lehen lehendakaria.

BEÑAT LARRAÑAGA

“Kontratazioari dagokionez, tokiko enplegu ekintzen baitako diru-laguntzak eman zaizkie enpresei kontratazioak sustatzeko”

metodologia landu da. Orientazio zerbitzu bat eskaini da eta bitartekaritza pertsonalizatua emateko sare bat eratu da.

‘Beterri Errotuz’ laneratze enpresa edota ‘Maitelan kooperatiba’ dagoeneko eratuta daude eta bi kasuetan orain arteko lankidetzaren hitzarmenari esker izan da.

Eta enpresen alorrean zer nolako urratsak emango dira?

‘Beterri Buruntza Ekinean’ zerbitzua eratu da, enpresa berriak sortzen laguntzeko aholkularitza zerbitzua. ‘Iturola’ Hernaniko coworking-a jarri da martxan eta merkataritza arloan ‘Guztionez programa’ sustatu da.

Bestetik, tokiko merkataritza sustatzeko ekintza konkrituak egin dira. Usurbilen hiru egin ditugu dagoeneko: Olanoenea plaza eraberritu dugu (Potxoeenea ondokoa), Irantzuko Kale Nagusiko pasabideko murala margotu zuen (eta bide batez, pasabidea argitu eta gaurkotu zen), eta egunotan

Sagardo Plaza biziberritzen ari gara. Tokiko merkataritza gune horiek lankidetzaren hitzarmenari esker txukundu ahal izan dira.

Ekonomia sozialari dagokionez, ‘Haziola’ programa jarri da martxan, eta ildo berean sustatu dira Martin Ugalde Kultur Parkea Andoainen, Kabiene Usurbilen edota coworking bat Lasarte-Orian.

Trantsizio energetikoa eta aldaketa klimatikoaren inguruan hainbat lanketa egin dira mugikortasun edo pobrezia energetikoari dagokionez. Turismoa ere landu da, Behemendirekin elkarlanean.

“Garapen agentzia jaio ahala lankidetzaren hitzarmena hiltzen utzi da”

NOAUA! Eskualdeko udalek 2012an adostu zuten lankidetzaren hitzarmenaren ildo nagusiak jarraituko ditu garapen agentziak?

Beñat Larrañaga: Behingogatik osatu da baina honek martxa hartzen hilabeteak beharko ditu. Langileak kontratatatu behar dira, baliabideekin hornitu behar duzu agentzia... Eta harreman

sarea ere berriro egin behar da. Zergatik? Lankidetzaren hitzarmenaren baitan lanean aritu den taldea eraitzia izan delako. Batetik besterako trasegitea egitea litzateke garbiena, baina garapen agentzia jaio ahala lankidetzaren hitzarmena hiltzen utzi da.

Eten baten arriskua egon daiteke?

Eten bat egon badago honez gero. Udal langileek ere lan asko egin dute. Bere gain hartu dituzte teoriarik beraiek ez ziren funtzioak, baina borondate handia egon da langileen aldetik. Bestetik, kontratazio batzuk egon dira lankidetzaren hitzarmenaren baitan. Eta langile horiek denak galdu egin dira bidean. Eta langileekin batera langileen

ezagutza, esperientzia eta sarea. Gai honetan kritikoak izan gara EAJ eta PSEekin. Argi dago bazeudela muga legal batzuk langile horiek kontratatzeke orduan, baina gauzak beste modu batean egin zitezkeen. Langile horien eskubideez haratago, galdu dugun jakintza hori eskualde osoarentzat galdu dugu.

Odolaren Mintzoa: “Lan berriak ditugun ahultasunak, arrakalak aztertzea izan du helburu”

Orain arteko ibilbideari muzin egin gabe baina doinu eta hitzetan jauzi kualitatiboa emanda bueltan datoz Jokin Irastorza, Beñat eta Joanes Txueka eta Luken Arkarazo, bestela esanda, Odolaren Mintzoa. Lau urteko isiltasuna apurtuz, “Hauskor” izeneko disko berriarekin. Ilusio berriturik, egunotan plazaratu ostean Aginagan aurkeztuko dute kan-tu bilduma berria hilaren 19an.



‘Hauskor’ izeneko diskoa kaleratuko dute aste honetan. Argazkia: Ibai Arrieta.

NOAUA! Azken lanetik hona lau urte igaro dira. Kontzerturen bat salbu, barne lanketan aritu zarete?

2017an “Etsipenaren aurka” lana kaleratu genuen eta diskaren bueltan kontzertuak eskaintzen aritu ginen 2018an zehar. 2019an disko berrian txertatu dugun “Dos pueblos una voz” abestia plazaratu genuen. Pandemia aurretik azken lana kaleratu eta gero nahiko geldirik geunden, erdi uzteko-tan. Kultur Biran kontzertu bat eman ostean 2020ko irailean Artzabalen bazkari bat egin ordea eta kantak bazeudela ikusita berriz serio hartzea erabaki genuen, lan berri bat kaleratzeko asmoarekin. Igaro den abuztura arte kantak sortu eta proiektua garatzen aritu gara.

Bazkaria egin zenuten unean osasun krisialdi beteak ginen. Sortzaileontzako garai zaila. Halere erraz erabaki zenuten testuinguru horretan aurrera jotzea?

Argi genuen ez genuela kon-

ODOLAREN MINTZOA
“Zaurgarritasuna da hitz gakoa. Zaurgarriak garela zentzu afektiboan, laboralean, gizontasunari dagokionez...”

tzerturik eskaini nahi jendea eserita zela. Ahal zen denbora gehien itxaron dugu diskoa ateratzeko. Egia da egun oraindik egoera kili-kolo dagoela eta hilaren 19ko geure aurkezpena ere hor dago, baina behintzat publikoa zutik dela kontzertua eskaintzeko aukera izango dugu eta aurrera jotzea erabaki dugu. Tarte horretan, LABI-a biltzekoa da eta agian kontzertuaren baldintzak alda daitezke.

Zer eragin du zuentzat publikoa zutik edo eserita ikusteak? Taldearen eta publikoaren arteko nahi eta ezin bat izan da. Kultur Biraren baitan Aginagan jo genuenean jendea eserita ikusten genuen, aulkiari hel-

duta, altxatzeko grin horrekin baina ezin. Formatu horrek alde onak ere bazituen. Eserita egonda jendeak emanaldi osoa ikusten zuen. Gainerakoan, talde gisa uztekoan ginenez, pandemia hausnarketarako ondo etorri zaigu.

“Hauskor” izena du zuen laugarren lanak. Emozioen aurkikuntza lana?

Gure letrak beti izan dira emozioei lotutakoak, baina diska honetan letretan inoiz baino arreta gehiago jarri da eta inoiz baino testu landuagoak daude. Jauzi kualitatibo nabarmena eman dugu. Disko kontzeptuala da. “Hauskor” izenarekin kantarik ez dago, baina letrek hauskortasunaren inguruan zentzu zabalean hitz egiten dute. Lan berriak ditugun ahultasunak, arrakalak aztertzea izan du helburu. Aurreko lana, “Etsipenaren Aurka” gehiago zen mundua aldatzeko deia dar positibo bat kanpora, bai-

na mundua aldatzen hasi baino lehen, agian gu hasi behar gara barrura begiratzen. Geure burua aztertu eta kontziente izaten, aldaketak lehenengo barrutik hasi behar duela, hori litzateke diskoaren hausnarketa.

Sarritan zaila egiten zaigun hauskortasuna adierazteari leku eman diozue beraz zuen lan berrian. Zaurgarritasuna aldarrian bilakatu duzue.

Zaurgarritasuna da hitz gakoa. Zaurgarriak garela zentzu afektiboan, laboralean, nork bere buruaz duen irudiarri, gure bizi ereduari, gizontasunari dagokionez... Gai horiek guztiak lantzen dira letretan. Aipatu izan digute aurreko lanak “Etsipenaren Aurka” izena zuela, oraingoak “Hauskor”, denak direla zentzu negatibo batean. Baina ikuspegi positiboan ikusten genuela guk esan genion, kantetan kritika erakitzailea dagoela. Adibide moduan, disko bigarren kantak “Biluzik” izena du. Bertan adierazten da kontzeptu bartzuei gizartean zentzu negatibo ematen diegula. Zaurgarri izatea ahultasunarekin lotzen dugula, baina zaurgarri izateak indargune bat ere erakusten du, kontziente izatea inor ez dela perfektua. Esaldi bat badago “samurtasunaren handitasuna, galtzailearen garaipena” dioena. Askotan enpatikoa izateak baduela garaipen bat, horretan huts egiten dela. Horren aldarria da kanta. Abesti oso alai da.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
 -Ogitartekoak
 -Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
 publizitatea@noaua.eus

“Jarraitzaile fidelak izan ditugu urteotan”

NOAUA! Taldearen eboluzio horren baitan kokatzen duzue diska hau edo orain arteko bidearekin hausten du? Taldea nola harrapatzen du laugarren disko honek?

Eboluzio baten parte da. Denborarekin esperientzia hartzen zoaz eta gauzak hobetzen ahal den neurrian. Eta abesti berriak ateratzen diren unetik hor nobedadeak badaude. Estiloan jarraipen bat dagoen arren, gure zalea izan denak jakingo du aztertzen badaudela ñabardura asko. Badaude kanta batzuk Odolaren Mintzoaren adierazgarriak direnak baina beste batzuk ez. “Singela” entzunda oso poperoak bilakatu garelako dirudi. Baina kanta hau, “Azkenak” izenekoa ez da diskoaren erakusgarri bat inondik inora ere. Abestietan ere jauzi kualitatibo bat ere bada, bai teknikoki jotzeko orduan. Erritmoetan bizitasun gehixea dago. Odolaren Mintzoa landuago eta helduago bat ikus daiteke. Erlojuz kontra gabiltza zuzenekoa prestatzen. Kostatzen ari zaigu, konposizio batzuk desberdinak baitira, landuagoak eta gehiago exijitzen digu instrumentu jottzaile gisa.



“Badaude kanta batzuk Odolaren Mintzoaren adierazgarriak direnak baina beste batzuk ez”. Argazkia: Ibai Arrieta.

ODOLAREN MINTZOA

“Single-a entzunda oso poperoak bilakatu garelako dirudi. Baina ‘Azkenak’ kanta ez da diskoaren erakusgarri bat”

Aurrerapen moduan, “Azkenak” abestiaren bideoklipa sareratu duzue. Herri auzolanean eginiko beste sortze lan bat.

Odolaren Mintzoa zerbeit bada talde usurbildarra da. Nahiga-

be egin dugun zerbeit da. Lau-
rok gara koadrilakoak, herrian
bizitza egin dugunak. Non
egingo dugu bideoklipa? Usur-
bilen bezalako leku batean,
non edozer egiteko baliabideak
eskura dauden. Buruhausteak
eragin zizkigun bideokliparen
grabaketak, hiru deialdi egin be-
har izan genituen Covid-19aga-
tik. 40 lagun, larunbat gau hotz
batean. Hor ikusten da jendeak
taldearekiko duen konpromi-
soa, haiek gabe Odolaren Min-
tzoa oraindik bizirik egotea ez

zen posible izango. Jarraitzaile
fidelak izan ditugu urteotan.
Jendeari protagonismo pixka
bat ematen saiatu izan gara bi-
deoklipetan.

**Zergatik hautatu zenuten
“Azkenak” aurrerapen bi-
deokliperako?**

Hauskortasunaren ideia hor-
ren baitan, guztia laburbiltzen
duelako bere baitan. Oso abes-
ti parte hartzailea da publi-
koarentzat, bukaerako errepika
dela eta.

Lehen kontzertua Aginagako Eliza Zaharrean eskainiko dute

NOAUA! Bideoklipa bera ere autoekoizpenean jorratu duzuen bidearen isla izango zen. Besterik ez dugu egin. Odolaren Mintzoa lokatzetan ibili den taldea izan da beti. Oraingoan Elkarrek eskua bota digu baina gainerakoa gure gain doa. Eskertu lerrootatik, denean laguntzen aritzen diren Pako Agudo eta Eñaut Pagola. Unai Aranek egin digu berriz diseinua. Izena, testuaren ideia oso ondo lotu du azalarekin. Bideoklipa Luis Jambri-
nak grabatu du. Promozio argazkiak Ibai Arrietarenak

dira. Irudiaren bidez ere al-
daketa bat bilatzen genuen eta
Ibaiek horretan ondo jakin du
asmatzen. Garate estudioetan
grabatu dugu lan berria, Kaki
Arkarazoren gidaritzapean.

**Asteotarako bi hitzordu finka-
tu dituzue.**

Otsailaren 10ean diskoa esku-
ragarri izango da. Eta hilaren
19an Aginagako kontzertua.
Bizpahiru kontzertu lotuak
ditugu. Promozio lanetan ari
gara.

Estreinako kontzertua Agina-

gako elkargune eraberrituan.

Lehen Eliza Zaharra oso txuku-
na bazen, orain auzolanean
egin duten lan puskarekin,
guretzat ohore handia izango
da lehen kontzertua bertan
eskaintzea. Guretzat beti izan
da leku berezia Aginagako.
Gure kontzertu berezietari-
koak han eman ditugu. Berriz
hara bueltatuko gara. Betikoak
bilduko gara baina ilusio berri-
tuak. Elene eta Maddi herriko
bi musikari oso gazte baina era
berean proiektzio handikoak
bertan izango dira. Animatu
Aginagara!

Bi hitzordu

Otsailak 10, osteguna

Lan berria eskuragarri fisi-
koki nahiz digitalki.

Otsailak 19, larunbata

22:30 Kontzertu gaua Agina-
gako Eliza Zaharrean: Mad-
di eta Elene eta Odolaren
Mintzoaren “Hauskor” lan
berriaren aurkezpena.
Sarrerak aurrez eskura dai-
tezke usurbilkultura.eus
plataforman.
Antolatzailea: Eliza Zaharra
elkargunea.

Etxean sentiaraziko gaituen adinekoen auzune berria, 2023an zabalik

Aurrerabidean dira Kalezarko adinekoen auzune berriaren eraikitze lanak, Usurbilgo Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Matia Fundazioak gonbidatuta otsailaren 4an eremura bertara antolatu zuten bisitan ikusi ahal izan genuenez. Aurreikuspenen arabera, urte amaiera honetan bertan buka ditzakete eraikitze lanak. Zaintza eredu aldaketa sakona dakar proiektuak, bertan biziko diren eta zaintza behar duten pertsonak etxean bezala sentiaraztea helburu nagusi izango duen egitasmo honi esker. Eta asmo hori gunearen izaeran baina fisikoki ere, arkitektonikoki ere nabariko da. Eredu berri horri erantzuteko diseinatua baitago Kalezarko adinekoen auzune berria.

Elkarbizitza unitate txikiagoak, arreta pertsonalizatua, egoiliarren autonomia eta komunitatearekin lotura zuzena. Hortxe nagusiki, egitasmo aitzindari eta berritzaile hau sus-



Matia, Usurbilgo Udala eta Foru Aldundiko ordezkariak bisita gidatu batean hartu zuten parte aurreko astean.

BERRITZAILEA

“Zaintza eredu aldaketa sakona dakar proiektuak”

tatzen ari diren hiru erakundeek nabarmentzen dituzten ezaugarri nagusiak. Zaintza ekosistema berri bat ari da eraikitzen herri hau, eta horren guztiaren emaitza izango da Kalezarren forma hartzen

ari den eremua.

Zenbakitan

- Lanak amaitzeko aurreikuspena: 2022. urte amaiera.
- Irekiera aurreikuspena: 2023. urte hasiera.
- Inbertsioa: 20,7 milioi euro (Aldundiak 6,4 milioi inbertsioa. 3,6 milioi euro Next Generation funtsetik).
- Plaza kopurua: mendeko-

tasuna duten pertsonentzako 127 plaza.

- Bizikidetzaren unitateak: 7. Unitate bakoitzean 18 pertsona.
- Etxebizitza kopurua: 110 (banakako 93 eta 17 bikoitz).
- Unitate psikogeriatrikoak: 2 (bakoitza 15 pertsonentzat, guztira 30 lagunentzat).
- Eguneko Zentroa: 40 plaza.
- Guztira: ia 200 pertsonentzako zerbitzua.

“Estatu mailan ere aitzindaria izango da egoitza”

“Egoiliarrek etxean egongo balira bezala sentitzea”, horixe litzateke helburua, Olanoren esanetan. Mugarri garrantzitsutzat jo zuen forma hartzen ari den proiektua. “Ez bakarrik Gipuzkoan, estatu mailan ere aitzindaria izango da egoitza, eta uste dugu Europan ere eredu honek izango duela zer ikasi eta zer erakutsia ere. Gure zaintza ereduaren kontsolidazio oso garrantzitsua izango da”. Bai zaintza ereduaren, bai egiteko moduetan nahiz arkitektonikoki ere, espazio fisikoan ekarriko duen eraldaketa azpimarratu zuen. “Usurbilek markatzen

du etorkizunean Gipuzkoako egoitzak nolakoak izango diren. Usurbilgoa etorkizuneko lehenengo egoitza dela esan dezakegu”.

Berritzailea den zaintza eredu honen lau bereizgarri nagusiak nabarmendu ditu; “bizikidetzaren unitate mugatuek, pertsonen autonomia, arreta pertsonalizatua eta komunitatearekin loturak izatea egoitzak eta egoiliarrek”. Eredu berritzaile honekin nahi dutena da, “persona erdigunean ezarri eta ahalegin kolektibo bat egin bere zaintza eta bere bizi-kalitatea ahalik eta onena izateko”.

“Eredu honek babesa jaso du Europar Batasunetik”

Zaintzeko moduen eraldaketaren baitan kokatu zuen ere proiektu hau bideratzeko erakunde arteko elkarlana; Foru Aldundiarena, Usurbilgo Udalarena eta Matia Fundazioarena. “Elkarlan eredu baten emaitza da eta gu bereziki pozik gaude”.

Olanok argi zioen, “helburua etxe giro bat sortzea da”. Ikuspegi aldaketa honen lanketa ez da bat-batekoa izan, Ahaldun Nagusiak Kalezarren gogora ekarri zuenez. Osasun krisialdiak eraldaketa honen beharra indartu duela gaineratu zuen,

baina proiektu hau ez dela ezohiko testuinguru honetan sortu. “Urteetako proiektua da” eta covid19ak “Gipuzkoa behintzat jada martxan zegoen ahalegin batekin harraipatu du”.

Eta babestua izan da herrialdetik kanpo ere. Finantziarioaren zati bat hain zuzen, Next Generation izeneko funtsetatik heldu da. Olanok zioenez beraz, “eredu honek babesa jaso du Europar Batasunetik eta guretzat hori poz handia izan da. Europan apustu honen bat egin eta babestu egiten da”.

“Traupen luzeko zainketen sostengarritasuna” jomugan

Euskal Herri mailan proiektu berritzaile eta aitzindari gisa aurkeztu ziren hedabideei Kalezarren eraikitzen ari diren adinekoen auzunea Usurbilgo Udaleko alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak hedabideei. “Ez soilik alderdi sozialetik” zioenez, baita “hirigintza alorretik erreparatuta” ere.

Nabarmendu zuenez, Matiak estreinakoz “arreta eredu berri bat martxan jarriko du” Kalezarren, “halabeharrez hona etorri behar izan duten pertsonak etxean bezala senti daitezen lortzeko”. Zaintza ekosistema berri bat dakar Kalezarren eraikitzen ari diren adinekoen auzuneak. Udalak Aldundiarekin batera estrategia oso bat diseinatu duela gaineratu zuen. “Traupen luzeko zainketen sostengarritasuna bermatzea helburu duen ekosistema bati buruz ari gara, Usurbilen errota, oinarri komunitarioa duena. Pertsonen nahiak aintzat hartzeko bokazioa duen ekosistema bat da, etxeetara bideratua, edota etxeak bezalako alojamenduak sortu nahi dituen”. Eredu horretan kokatu zituen bai adinekoen auzune berri hau nahiz handik hurbil Ugartondon eraikitzen ari diren belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa ere, Txirikorda.



Matiak estreinakoz “arreta eredu berri bat martxan jarriko du” Kalezarren.

ALKATEA

“Traupen luzeko zainketen sostengarritasuna bermatzea helburu duen ekosistema bati buruz ari gara”

Etxean bezala

Egitasmo batek zein bestiek etxean bezala sentiaraztea eskaini nahi die zaintza beharrean diren pertsonen. Modu horretan, hain zuzen zainduak izateko beharra dutenen %90ak baino gehiagok adierazitako borondatearekin bat egiten duela proiektuak nabarmendu zuen Usurbilgo alkateak. “Zaintza behar duten pertsonen gehiengoak, %90ak baino gehiagok, esaten delako zaintza behar izanda ere etxean izan nahi duela zaindua, eta beraz hori bada gure herritarren gehiengoaren na-

hia, erakundeok nahi horri erantzun behar diogu”.

Nahi horri erantzuteko zer egingo dugun galdetu behar diogu geure buruari Solaberrietak adierazi duenez, eta galdera horri erantzuten hasia dela Usurbilgo herria, taldean iaiztik egiten ari den gogoeta prozesuarekin, “hasieratik garbi izan dugulako herrian tokiko zaintza ekosistema bat eraiki behar badugu, eraikuntza horrek kolektiboa izan behar duela, behetik gorakoa eta elkarlanean eraikitakoa izan behar duela, sektorearekin, erakundeon eta herritarren artean”.

Baliabide beharrean

Eta hala egiten ari dira iaizko udaberritik Potxoenean. “Premia horretatik sortu eta martxan dugu parte hartze prozesu oso zabala. Zaintzari ikuspegi integraletik erantzun nahi

diogu”. Prozesuko parte hartzaileak jarri zituen adibide moduan. “Gure herrian zaintza lanak eskaintzen dituzten enpresetako ordezkariak ari dira parte hartzen, herrian nahiz herritik kanpo ari diren langile profesionalak, gehienak migratzaileak diren etxeko langileak, menpeko pertsona duten senideak, zaintza behar duten herritarrek, elkarteetako ordezkariak, mugimendu feminista ere, guretzat garrantzitsua delako zaintza ekosistema horretan genero ikuspegia bermatzea eta ekosistema berri hori genero ikuspegitik ere heltzea. Eta nola ez, erakundeok”. Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Osakidetza.

Hedabideen aurreko agerrialdia baliatu nahi izan zuen Usurbilgo alkateak, adierazteko “eraldaketa hau erabatekoa” izateko ezinbestekoa izango dela, “eskumenak ditugun erakunde guztiok zein sektoreak norabide berean arraun egitea estrategia integral baten baitan”. Eta norabide horretan, gaineratu zuenez, “agendak sinkronizatzea, guztion artean trantsizio hau nola egin nahi dugun adostea eta herri akordio zabalak lortzea”. Eta horrekin batera “eredu berriaren muina tokiko zaintza ekosistemak izango badira”, horretarako udalentsat babes juridikoa eta baliabideak eskatu zituen Solaberrietak.

“Usurbil mugarri moduko bat izango da, erreferentzia duin, interesgarri eta oso berritzailea”

Mugarri gisa ikusten du Kalezarren eraikitzen ari diren adinekoen auzunea Matia Fundazioak. Bere lehendakari Mari Karmen Garmendiaren esanetan, “Usurbil mugarri moduko bat izango da, alde askotatik begiratuta erreferentzia duin,

interesgarri eta oso berritzailea”.

130 urteko ibilbidea jorratua duen irabazi asmorik gabeko erakundeak sorreratik beti “pertsona helburu jokatu du eta are gehiago”, nabarmendu zuenez, “hamar urtetik hona. Pertsona helburu esaten dugun

hori esango nuke pertsona bakoitza helburu eta horretara egokitzen ari dela bere jardun guztia; langileen prestakuntza, bertako prozedura guztiak, zaintza ereduak eta abar”.

Esker oneko agertu zen Garmendia Kalezarko adine-

koen auzunea eraikitzeko proiektuan bidelagun dituen Usurbilgo Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, “gurekin izan duten konfiantzagatik” eta lankidetzarako agerturiko borondateagatik.

“Bat-batean Kzgunean hasten dira eta mundu berri bat irekitzen zaie begien aurrean”

Iurgi Andonegi da Usurbilgo Kzguneko arduraduna. Urteak daramatza Kzgunek Txaramunton informatikari lotutako zerbitzuak eskaintzen. Internet, mugikor, ordenagailu eta antzeko gailu elektronikoei buruzko formakuntza eta laguntza eskaintzen dute. Covid ziurtagiria ateratzen ere laguntzen ari dira azken bolada honetan. NOAUA!rekin izan da Kzguneko hezitzailea.



Argazkian, Iurgi Andonegi Usurbilgo Kzguneko arduraduna.

NOAUA! Urte asko daramatza Kzgunek Usurbilen zerbitzuak eskaintzen, baina zeintzuk dira Kzgunearen funtzio nagusiak?

Iurgi Andonegi: Herriari eskainitako informatika zerbitzu bat da. Gaur egun teknologiari lotutako geroz eta produktu eta kontzeptu gehiago daude, eta geroz eta jende gehiago dago arazoak dituen teknologia beharrei erantzuteko. Kzgunearen funtzioa arazoak dituen jende horri laguntza ematea da. Internet erabiltzen lagun dezakegu, formakuntza saioak ere egiten ditugu edo dena delakoa.

Agian, adinekoei eskainitako zerbitzua izan daiteke, batik bat?

Printzipioz edonorentzat eskainitako zerbitzua da, gazte zein

IURGI ANDONEGI
“Kzgunea Eusko Jaurlaritzaren proiektu bat da, online mundu hori ezagutzeko gogoia edo beharra duen jendearentzat”

heldu. Egia da, bereziki, jende heldua izaten dela laguntza gehien behar duena edo bai behintzat bultzadaxo bat. Urte gutxian teknologiak izugarriko saltoa eman du eta etengabeko aldaketa dugu. Horrez gain, kontu administratiiboak egiteko ere, sarean egin behar dira kudeaketa asko. Lehen lehia-tiletan edo aurrez aurre egiten

ziren tramite asko orain sarean egin behar dira. Beraz, arazo asko sortzen dira prozesu horietan. Kzgunea Eusko Jaurlaritzaren proiektu bat da, online mundu hori sustatzeko jakiteko gogoia edo beharra duen jendearentzat.

Formakuntza saioak aipatu dituzu baliabide garrantzitsu gisa. Zein motatakoak izan ohi dira edo zer da gehien bat lantzen duzuen?

Hastapenetako formakuntza eskaintzen dugu. Ordenagailu batekin edo edozein gailu elektronikorekin gutxiengo harremana izaten erakusten dugu. Ordenagailua piztu, fitxategiak moztu eta itsatsi... horrelako gauzak lantzen ditugu. Ge-

zurra badirudi ere, jende askok horrelakorik ez du sekula ikusi lanean ez duelako inoiz ordenagailurik edo bestelako gailurik behar izan, eta orain, ikasi egin nahi du. Lehenengo hartueman horretan izugarri harritzen dira funtzionatzeko modua ikusita. Oso gustura egoten dira eta mundu berri bat aurkitzen dute. Nire ustez, hori da nire lanak duen alderirik politena, momentu horretan jendearen alboan egon eta poztasun hori partekatzea. Libreoffice ere lantzen dugu, software libreko baliabideak erabiltzen erakusteko. Idazteko baliabideak, aurkezpenak eta kalkulu orriak aztertzen ditugu. Etxean jarri eta erabili ahal izango dituzten baliabideak eskaintzen dizkiegu, eta etxean horiek jartzen ere erakusten diegu. Irudiak eraldatzeko programa txiki bat ere badaukagu, eta horrez gain, tabletak eta mugikorak ere erabiltzen erakusten dugu. Internet erabiltzen ikasteko formakuntza ere eskaintzen dugu eta, batez ere, Googlen jartzen dugu arreta. Korreoa sortzen eta erabiltzen irakasten dugu: gmail, Drive, Calendar, mapak... Kontu horiekin guztiekin erabat lotuta daude egunerokoan erabili nahi dituzten baliabideak ere dela Whatsapp edo GPSa.

“Webgunearen bidez, edozeinek har dezake hitzordua gurekin”

NOAUA! Nola eman dezakegu izena formakuntza saio haue-tan parte hartu ahal izateko?

Iurgi Andonegi: Zenbat eta jende gehiagok izena eman hobea. Guk aurretiko hitzordua eskatzea sustatzen dugu. Hortaz, gure webgunearen bidez, edozeinek har dezake hitzordua gurekin eta, bertan, gaia ere aukera dezake guk al-

dez aurretik jakin dezagun zein behar dituen eta nola lagundu azter dezagun: informazio orokorra, tutoretza, bankuko aplikazioa, Izenpe... Sistema horrek noiz eta zein ordutan etorriko den ere jakinarazten digu, eta modu horretara, dena prest izaten dugu. Zuzenean norbait agertuko balitz, arta genezake beti ere inorekin ez

banago edota formakuntza saioen bat ematen ariko ez banintz.

Zein formakuntza saio daukazu begibistan?

Otsaileko programa baino ez daukagu momentuz erabat lotuta. Arratsalde eskainiko dugu zerbitzua, oinarrizko kurtsu bat daukagu, libreoffice ere bai, mekanografia ikasteko aukera

ere egongo da. Azken aukera hau internet bidez egiten da. Azkenik, Smartphone eta Table izeneko formakuntza saioa ere badaukagu bakoitzak bere mugikorra erabiltzen ikas dezan. Azken formakuntza saio hau beti motz geratzen da. Jendeak galdera asko izaten ditu eta beti geratzen dira gehiago ikasteko gogoarekin.


“Jubilatuak etortzen dira batik bat Kzgunera”

NOAUA! Zein da Kzguneko erabiltzaile profil ohikoena?

Iurgi Andonegi: Jubilatua etortzen dira, batik bat, batez ere, jubilatuta berri dauden pertsonak. Ezertxo ere jakin gabe iristen dira asko eta gogoz eta gustora aritzen dira. Bat-batean ikasten hasten dira eta mundu berri bat irekitzen zaie begi aurrean. Emakume helduak ere etortzen dira, eta gainera, emakumeak gehiago direla esango nuke. Honekin ez dut esan nahi gizonak etortzen ez direnik, baina emakumeak proportzioan gehiago direla esango nuke. Beldurra eta lotsa izaten dituzte askok lehen aldiz etortzen direnean eta, tira, gure lana horri erantzun eta pazientziarekin pixkanaka laguntzea da. Lehen beldur horiek galtzen laguntzen diegu eta teknologiaren arlora hurbiltzen ditugu.

COVID ziurtagiria eskuratzeko laguntza ere eskaintzen hasiz zineten urtarrilean. Nola funtzionatu du horrek?

Ondo, baina onartu behar es-tresatuta ere ibili gara. Jende asko etorri zaigu momentu berean, eta mugimendu handia



“Lehen beldur horiek galtzen laguntzen diegu eta teknologiaren arlora hurbiltzen ditugu herritarrak”.

IURGI ANDONEGI

“Aste batzuetan buru-belarri aritu ginen Covid ziurtagiriak ateratzen laguntzen”

atzeman dugu zentzu horretan. Aste batzuetan buru-belarri aritu ginen ziurtagiriak ateratzen laguntzen. Horrez gain, mugikorrean gordetzen erakutsi diegu eta nora jo beharko

duten nonbait eskatzen badiete. Zorionez, Osakidetzako orriak oso ondo funtzionatu du, eta horren bidez ondo joan da, baina lan eskerga handia.

Hemendik aurrera ere, norbaitek hala beharko balu, jarraituko duzue zerbitzu hori eskaintzen?

Jakina, gure xedea laguntzea da. Ziurtagiriarena dela edo beste edozer dela ere laguntzeko prest gaude. Oso baliabide

interesgarria daukagu horretarako, tutoretza deitua. Zerbitzu horrek aukera ematen digu 15 minutu pertsona bakar bati eskaintzeko, ikusteko zer behar duen eta horretan laguntzeko. Dena delako arazoari aurre egiteko daukagu zerbitzua, dela ziurtagiriaren kontua, Lanbidetik eskatutako dokumentuak ateratzeko, erabiltzaileak eta pasahitzak sortzen... dena delako gaiarekin laguntzeko gaude, printzipioz.

“Gurea bezalako zentroak izatea oso garrantzitsua da herritar askorentzat eta gizartearentzat”

NOAUA! Kzgunearen barnean ordenagailu libreak ere badi-tuzue nahi duenak joan eta erabil ditzan, ezta?

Iurgi Andonegi: Edozein erabiltzailearentzat daukagu prest zonalde hori. Lanean hasi aurretik orritxo bat bete eta lasaitasun osoz ibili. Printzipioz erabilera mugatua da, baina jende asko ez da ibiltzen normalean eta gehixeago ere gera gaitezke. Inprimatzeko aukera ere es-

kaintzen dugu, eta gainera, eguneko bost inprimaki doan eskaintzen ditugu. Inprimatzeko laguntzarik behar ez badu, etorri eta berehala egin dezake hori. Laguntza behar badu, ordea, tutoretza bat egiten dugu, eta beraz, aurretik jakitea komeni zaigu.

Zerbitzu honek erabiltzaile asko ditu?

Bai, formakuntza egin duten asko gero praktikatzera etor-

tzen dira. Askotan formakuntzetan gauza pertsonalak begiratu nahi dituzte, baina ezin dugu hori horrelako saio batean egin. Beraz, azken zerbitzu hau horretarako erabiltzen dute askotan. Ezin duguna da guk geuk egin haien behar bat, inprimaki bat bete edo dena delakoa. Guk lagundu egiten dugu behar bati erantzuten.

Beharra duen jende asko ager-

tzen zaizue?

Kzgunea oso leku erabilgarria da. Kanpotar asko ikusten ditugu iritsi berri eta paper lan asko egiteko beharrez edo etxean ordenagailurik gabe eta nori laguntza eskatu jakin gabe. Zentro hauek azalera ateratzen dituzte behar asko, eta beraz, gurea bezalako zentroak izatea oso garrantzitsua da herritar askorentzat eta gizartearentzat.

Pandemiarekin gero eta gehiago normalizatu da psikologoarenera joatea

Pandemia dugu hizpide komunikabide guztietan azken bi urteetan, bai eta lagunartean zein lanean ere. Covid-19ak gizartea astindu du, eta jendeak horren eragina nabari du bizitzako alderdi guztietan. Geroz eta garrantzia gehiago ari zaio ematen osasun mentalari, osasun fisikoaz gain, jende askoren osasun mentala ere jipoitu baitu pandemiak.

Ainara Urdanpilleta psikologoak eta Jon Imanol Etxabe psikologo eta sexologoak hori nabari dute euren egunerokoan: “Pandemia aurretik, agian, jendeak sintoma batzuk nabari zituen eta pandemiaren ondorioz intentsitatean gora egin dute. Egunerokotasunean horren eragina nabaritzen hasi dira asko, baina ohiko sintomak dira, ez dira aldatu arazoan ezaugarriak”, esan du Urdanpilletak. Geroz eta gehiago normalizatu da psikologoarenera joatea ondo ez sentitzean, eta sare sozialetan ere askotan salatu da psikologoarengana joateko norbanakoek duten eskubidea. “Asko etorri zaizkigu arazoaren batekin, eta askok ez dute terapia luzeen beharrik



Jon Imanol Etxabe psikologo eta sexologoak hainbat azalpen argigarri eskaini dizkigu.

JON IMANOL ETXABE

“Hasierako su hori itzaltzea da batzuk behar dutena eta hori saio bakarrean egin dugu”

ere. Hasierako su hori itzaltzea da batzuek behar dutena eta hori sesio bakarrean ere egin dugu. Beharrak anitzak dira eta laguntza behar denean, eska-

tzen jakin behar da”, azpimarratu du Jon Imanol Etxabek.

Psikologoarenera joan eta ingurukoei naturaltasun osoz esatea geroz eta ohikoagoa da, eta arazoaz jabetzean laguntza eskatzen ere askok ikasi egin dute. Zorritzarrez, ordea, pertsona askok ingurukoren bat galdu du Covidak jota edo beste gaitzen batek hartuta eta ez dute agurtzeko aukerarik ere izan. “Pertsona bat gal-

tzean dolua pasatu behar da. Dolua berez mina da, tristura eta galera sentsazioa pasatu egin behar dira. Oso sentipen naturalak dira. Luzatzen ari den prozesu bat bada, bost bat hilabetean edo burutik kendu ezin duen zerbait dela, eta eguneroko zereginetan eragin egiten dion gaia dela, profesional baten bila hastea komeniko litzateke”, Ainara Urdanpilletaren hitzetan.

“Lehen itxialdiak hutsune sentsazio izugarria eragin zidan”

Bi psikologoak “erresistentziaren” parte dira, ez baitzaie konfinatzerik tokatu azken boladan. Hala ere, Jon Imanol Etxabek onartu du lehenengo itxialdian ez zuela ondo pasatu eta hori kudeatzen ikasi behar duela oraingoan ere etxean gertatzea tokatzen bazaio: “Nire kasuan, itxialdia bai izan zen potentia niretzat. Asko

mugitzen naiz, leku askotan egoten naiz eta nire egutegia oso markatua da, eta ez naiz gelditzen. Erabateko geldialdia egitean, sortu zitzaidan izugarriko hutsune sentsazioa. Zeregin ezarekin. Gorputzak lasaitzeko eskatzen zidan, ez duzu aprobetxatuko esaten zidan buruak. Hainbeste eskatzen zenuen denbora hor duzu eta ez duzu aprobetxatuko.

Esku artean duzu eta ez duzu ezer egingo? Hor dago borroka exigenteak garenontzat eta pixka bat lasaitu behar da”.

Mindfulness ariketak

Urdanpilletak, berriz, dena prest dauka ia ekidin ezina izango duen egoera horri aurre egiteko: “Ez zait konfinatzerik tokatu, baina dena prest daukat tokatuko balitzait

ere. Nik nire teklatua gelara emango dut, margotzeko liburuxka bat ere eskatu dut eta liburu batzuk ere prest. Mindfulness ariketa asko ere egingo nituzke denbora horretan. Hori gertatzen bada, nire esku ez dagoen zerbait da eta beraz, ahalik eta ondoen eramaten saiatu behar da”, horra Urdanpilletaren plana.

“Antolamendua ezinbesteko giltza da”

Azken olatu honek jodu bortitzen Usurbil eta orokorrean Europa osoa. Gizartearen erdiak jasan behar izan du eta jasan beharko du datozen asteetan konfinamenduaren zama adituen usteetan. Planifikazioa giltzarri indartsua da etxean astebete egin beharko duen jendearentzat eta horri aurre egiteko psikologoek badituzte ideia batzuk.

“Orain daukagun abantaila da, antolamendua egiteko aukera daukagula. Gelan berrogeialdi bat egitea zerbait oso probablea da, eta horrek asko aldatzen du antolatze modua”, Aina Urdanpilletaren esanetan. “Estresa ere badakigu nola eraman jakinda lehenago edo beranduago gertatuko den zerbait izango dela. Beraz, bihar, etzi edo hurrengo astean konfinatu behar badut, nola antolatuko dut gela? Zer egitea gustatuko litzaidake? Liburu batzuk hartuko ditut? Musika instrumenturen bat joko dut? Erosiko dut margoitzeko zerbait? Antolamendua ezinbesteko giltza dela iruditzen zait. Lan ikuspuntutik ere gertaerak aurreikustea komeni da, nola antolatuko nintzatekeen kasu horretan”, Urdanpi-



Ainara Urdanpilletak hainbat aholku praktiko zerrendatu dizkigu.

AINARA URDANPILLETA

“Orain daukagun abantaila da, antolamendua egiteko aukera daukagula”

lletaren aburuz.

“Planifikazioaren kontuak hala ere, bere arriskua du”

Etxabek ere planifikazioaren giltza azpimarratu du, baina izaera bakoitzari ondo moldatuko zaion moduan egin behar dela jakinarazi du: “Planifikazioaren kontuak arrisku bat du: zurrunezi planifikatzea, ordutegi oso itxiekina. Beraz, nik

planifikazio bat bai aholkatuko nuke, baina planifikazio malgu bat. Ideia orokorrak jartzea da egokiena, egin nahi dudana hori ezartzea”. Geure burua derrigortzen badugu gauza gehiegi egitera eta oso modu zurrunean, oso erraza da autoexigentzia erortzea, eta ondorioz, amore ematea. Jon Imanol Etxaberen esanetan, “ezin badut dena nahi dudana bezala egin, ez dut egingo. Hor perfekzionisten kasuan ona izaten da %70aren legea martxan jartzea. Oso perfekzionista den jendea beti saiatzten da %100 ematen eta horrenbeste lortzen ez baduzu, ez zaude gus-

tora. Askotan pentsatzen dute %90a lortzeak ez duela mezezi. Saiatu behar dugu %70a egiten eta gainontzekoaz ez arduratu. Gomendatuko nuke lasaitzeko denbora hartzea ere, Pomodoro teknika jarraituz, adibidez. 25 minutu lan egin eta 5 minutu deskantsatzeko hartu. Sukaldean janaria prestatzeko denbora neurtzeko sortu ziren tenporizadoreak Pomodoro markakoak ziren, eta 30 minutuz baino ez zuten lan egin. Beraz, hori psikologiarik ekarrita, 25 minutu lan egin eta 5 denkansatzeko hartzea da onena. Horrela, 25 minututan sor daitekeen distrakzio oro denkansatzeko bost minutuetan aprobetxatzeko utz ditzakezu eta lanean burubelarri aritu bitartean”. Psikoterapian ere teknika hori erabiltzen dela dio Etxabek. “Gela gorria deitzen zaion bat ere bada, pentsamendu intrusiboak daudenean, beldurrak edo ardurak. Finkatzen dira denbora tarte batzuk egunero ordu berean, komunean edo dena delako lekuan 10 bat minutuz barneko emozioak askatzeko. Egunean zehar, berriz, gela gorri horretara bideratzen dira pentsamendu horiek, gero, bere momentuan askatzeko”.

“Beti esaten dut komunikazioa dela bikote ororen giltza”

Sexologia arloan ere sakontzeko aukera ona izan daitekeela azpimarratu du Jon Imanol Etxabek eta konfinamendua momentu ona izan daitekeela bikote harremanean sakontzeko. “Bikote terapietan bikote asko etortzen zaizkit arazoa dutela konturaturata, eta komunikazioaz galdetzeko beti ondo daudela esaten duten asko daude.

Behin sakontzen hasita, agian, komunikazio arazoak dituztela konturatzen naiz, eta hor da goela arazorik handiena. Nik beti esaten dut komunikazioa dela bikote ororen giltza”.

Psikologoarenera joatea geroz eta ohikoagoa da, bi psikologoek eta datuek ere halaxe diote, baina sexologian ez dirudi joera hori gehiegi gailendu denik Jon Imanol Etxabe

sexologoaren hitzetan: “Gazteak, agian, gehiago etortzen dira gure zerbitzura”. Sexuari sortutako arazoak uste baino ohikoagoak omen dira, gizonen kasuan zutitzeko arazoak edota isurketa azkarra izaten dira arazo ohikoak, eta emakumeen kasuan, berriz, bajinismoa eta sarketari lotutako arazoak. “Arazo hauek guztiak, askotan, jatorri psiko-

logikoa izaten dute, umetan bizitako bizipenen bati lotutako traumaren bat edo geroa sortutako arazoaren baten ondorioz.

Sexologoak halako arazoaren aurrean kontsulta eskatzeko aholkatu du, psikologoarenera joatea normalizatzen ari den moduan, sexologoarenera joateak ere normala behar bailuke.

Mozorro festa girotua

Iaz ez zen modurik izan, aurten ordea bueltan dator-kigu Inauteri Festa plaza-ra. Oraindik ez guztiz ospatu nahiko genukeen moduan, baina giroterik ez da faltako herrian.

Otsailak 25, ostirala

■ Orbeldi Dantza Taldekoekin, Uztaritzeko Inauteriak dantzan:

■ 19:00 Kalejira Oiardo Kiroldegitik abiatuta.

■ 20:00 Dantzak frontoian.

Otsailak 26, larunbata

■ 12:30 Orbeldirekin dantza frontoian. Mozorrotu eta etorri dantzara!

■ 12:30-14:00 Joaldunak kalean zehar.



Inauteri Jaiaren bezperan, Orbeldi Dantza Taldekoekin Uztaritzeko Inauterietako dantzak egingo dituzte. Otsailaren 25ean, ostiralarekin.

■ 18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira. Mozorrotuta, karroza hartu eta gorputza astintzeko gogoz bazaude ez galdu kalejira!

■ 20:00 Txarangarekin batera 'Gora Inauteriak' dantza saioa Mikel Laboa plazan.

■ Antolatzaileak: NOAUA! eta Orbeldi Dantza Taldea.

Orbeldiko ur biziaren kanalaz herri batzar irekia Sutegin

Orbeldiko presaren eta kanalaren eragina erriean izeneko herri batzar irekia deitu du Anerreka ingurumen elkarteak otsailaren 10ean 18:30ean Sutegin. "Oria ibaiaren natur kontserbazioa eta biodibertsitatearen berreskurapena helburu, eman beharreko urratsak aztertu eta elkarbanatzea izango da saioaren muina", iragarri du aipatu elkarteak.

Ibaien ekologian nazioarteko aditua, Artikutzako urtegia hustutzearen ondorioen ikerketaren zuzendaria eta ekologian



Ostegun honetan egingo da batzarra, hilak 10, Sutegin.

katedradun irakaslea EHUn Arturo Elozegi eta biologoa, HUEZIKO irakaslea, Naturkoneko

partaidea den Aitziber Sarobe gongidatuko ditu Anerrekak hitzordu honetara.

Oria, lehiatoki

Arraunak errioa biziberrituko du asteotan. Igande honetan Euskadiko Ibilbide Luzeko nahiz Aulki Mugikorreko txapelketak jokatu dira. Eta hilaren 19an, Oriaren Traineru Jaitsiera.

Otsailak 13, igandea

■ 13:00 Euskadiko Ibilbide Luzeko Txapelketa/Aulki Mugikorra.

Modalitateak:

■ 6 kilometro (Mapiletik): Jubenilak eta Absolutuak.

■ 4 kilometro (Saikolatik): Kadeteak; Beteranoak; Egokituak.

■ 2,5 kilometro: Infantilak.

Otsailak 19, larunbata

■ 16:00 28. Oriaren Traineru Jaitsiera Aginagatik Oriara.

■ Probaren ibilbidea: 6 kilometrokoa Mapiletik Oriara eta 4 kilometrokoa Saikolatik Oriara.



Otsailaren 19an Oriaren Traineru Jaitsiera egingo da.

Binakako Master Laboral Kutxa txapelketa

Otsailak 27 igandea, Segura Leire Garai-Miriam Arrillaga Madalen Etzegarai-Uxue Osés

Martxoak 6 igandea, Legazpi

Leire Garai-Miriam Arrillaga Maddi Barrokai-Nora Mendizabal

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
· eguneko menua · asteburuko menua
· karta · oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Antxi Patxena Jaitsiera
· bazkariak EGUNERO
· afañak: OSTIRAL/LARUNBATA
☎ 943 362725
☎ 688 690 361

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Etxe bat alokairuan kaxkoan. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta igogailuarekin. 656783227

Bi logeletako etxebizitza alokatzen dut Usurbilen. 750 euro hilabetea, maskotarik ez da onartzen. 647 58 72 58

San Esteban kalean (Etxealdia) 31m²ko lokal bat alokairuan. Masajeak emateko edo estetika zerbitzuak emateko prestatuta dago. 655735715.

Alokairuko pisu batean gela

bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Usurbilen pisu konpartitu batean logela bat alokatzen da mutil edo neska baten-tzat. Bila bazabiltza deitu 618032966

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia: 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. Interesatuok, hona deitu: 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaur-laritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en, barra, eguneko menua eta kartarako. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaerarako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea

baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. 943366710 edo 943370668.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkat. Nere zenbakia: 688715958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Interna moduan edo orduka pertsonen zaintzan lan egingo lukeen neska bat naiz. Mugitzeko aukera dut. 643154392

Adinekoak eta haurrak zain-tzak edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

BESTELAKOAK

Abenduaren 19an larruzko eskularru marroi bat (barrutik larru txuria duena) galdu genuen Harane futbol zelailan. Aurkitu baduzu deitu 685725681

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. Interesatzen bazaizu deitu 607 668 603 (Joxe Cruz)

**Zorionak Arai!**

Gure sorgintxoak 5 urte bete ditu!!

Zorionak printzesa!!

Futbol partidak Haranen

Otsailak 12, larunbata

■ 09:30 Alebinak, Eskola Kirola.

■ 11:30 Kadete mutilak: Usurbil FT "A"-Orioko FT "A"

■ 16:00 Erregionalak: Usurbil FT-Axular KKE

■ 18:30 Jubenilak: Usurbil FT-Kostkas KE "C"

Otsailak 13, igandea

■ 10:00 Kadete neskek: Usurbil FT-Hondarribia FE

■ 12:00-14:00 Futbol Eskola: Alebinak lehen urtekoak,

2011: Usurbil FT-Ordizia KE

■ Benjaminak 2. urtekoak, 2012: Usurbil FT-Hernani CD

Pilota partidak Usurbilgo frontoian

Otsailak 11, ostirala

■ Alebin 2. Maila: Pagazpe 2 - Alde Zaharra 2

■ Alebin 1. Maila: Pagazpe 1 - Hernani 1

■ Infantil 2. Maila: Pagazpe 2 - Añorga 1

■ Infantil 1. Maila: Pagazpe 1 - Azkoiti

Eskubaloi partidak Kiroldegian

Otsailak 12, larunbata

■ 17:00etan Jubenil mutilak -Euskal Liga Usurbil.

-Ereintza.

■ 19:00etan Senior mutilak -Euskal Liga Usurbil.

-Corazonistas.

Goardiako farmaziak

Osteguna 10 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 12 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 13 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astlehena 14 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 15 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 16 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Osteguna 17 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 18 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 19 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 20 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda otsaila

11 ostirala

- **Zubietako Mintzalagun egitasmoaren aurkezpena.** 17:00etan Zubietako Kaxkapen. Sustatzaileak: Etumeta AEK euskaltegia, NOAUA! eta Usurbilgo Udala.
- **Herri bilera Sutegin, Bizitza plataformak deituta.** 18:00etatik aurrera.

12 larunbata

- **Joxe Manuel 'Ikutza'-ren aldeko omenaldia.** Informazio gehiago, orrialde honen azpialdeko oharrean.

13 igandea

- **Arraunlarien txapelketa Orián.** 13:00ean Aginagan (Mapi eta Saikola). Zehaztasunak: Euskadiko Ibilbide Luzeko Txapelketa / Aulki Mugikorra.

Zubietako Mintzalagun egitasmoaren aurkezpena

Zubietan euskaraz praktikatu nahi? Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin, edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, Mintzalagun programa duzu eskura.

Parte hartzaileek erabakitzen dute zer egin eta noiz egin. Taldeak kafetegian edo paseatzeko batu ahal dira, baina beste aukera asko egon daitezke: zinemara joatea, bizikletaz ibiltzea, mendira joatea...

Bilera, Kaxkapen

Zubietan talde bat osatzeko asmoa dago eta horren harira, bilera bat antolatu



Bilera bat antolatu dute ostiral honetarako. Arratsaldeko 17:00etan, Kaxkapen.

dute ostiral honetarako. Arratsaldeko 17:00etan, Kaxkapen.

Ekimen honen sustatzaileak herri eragile hauek dira: Etumeta AEK euskaltegia, NOAUA! K.E. eta Usurbilgo Udala.

Joxe Manuel 'Ikutza'-ren omenezko egunpasa

Otsailak 12, larunbata

- 12:00 Burma Road txapelketa Sutegiko erakustaretoan.
- 13:00 Omenaldia Sutegi atarian: airtortza gure lagunari eta beragatik topa egingo dugu.
- 14:00 Dardozaileen bazkaria Patri jate-txean.
- 17:00 Bikote Eroak txapelketa Sutegiko erakustaretoan.
- Informazio gehiago eta ekitaldietako izen emateak: Aitzaga tabernan.
- Antolatzailea: Usurbilgo Dardo Taldea.

Datozenak

“Euskara eta natura txirikordatzuz: Usurbilen”

Naturak ahozkotasunean utzi duen arrastoan oinarrituko da hitzaldiaren lehenengo zatia. Ondoren bi autoreek kaleratu berri duten lana aurkeztuko dute: ‘Gure faunari eta floriari begira’. Amaieran, solasaldirako beta izango da.

Otsailak 17 osteguna

- 19:00 Potxoenean.
- Hizlariak: Iñaki Sanz-Azkue eta Eñaut Agirre.
- Izen ematea: usurbilkultura.eus
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Kontzertuak Aginaga: Maddi & Elene eta Odolaren Mintzoa

Maddi eta Eleneren atarikoaren ondoren, Odolaren Mintzoa taldeak ‘Hauskor’ bere azken diskoa aurkeztuko du. Sarrerak usurbilkultura.eus plataforman eta Aginagako Arraten.

Otsailak 19 larunbata

- 22:30 Aginagako Eliza Zaharrean.
- Antolatzailea: Eliza Zaharra elkargunea.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Kima
MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ADA
-MASAJEAK-

633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2022

Kimaketa
praktikak
bertako
sagastietan
egingo dira!

Otsailak 24, OSTEguna
SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA,
ETA ONGARRIKETA.
Aitor Etxeandia

ORDUTEGIA: 15:30 Potxoenea

SARRERAK: aldez aurretik
usurbilkultura.eus plataforman edo
www.alkartasuna.eus





Zu zara
nire bihotzeko
azukre-koxkorra

JASO ZURE MAITASUNAREN GEZIA GOGOKOEN DUZUN PERTSONAREKIN PARTEKATZEKO

Otsailaren 7tik 14ra, hurbildu zaitez
bezeroarentzako arreta-puntura, erakutsi Urbil
App-eko QR identifikatzailea, eta jaso doan zure
San Valentineko gominolazko gezia.